


## POLITIKAKO KONTUAK,



Negarren jainkosa samurtu nagizu,  
Egin dakidan malkoz biotz danau urtu,  
Anchiña emon neutsun lenengo tantia,  
Baita beterik ichi zure edontzia,  
Urteokaz nik egin ez arren negarrik,  
Ibilli nazalako erdi zoraturik.

Iñok baño obeto zuk bada dakizu,  
Mundura zelan nintzan ozta ozta agertu,  
Zure lira tristea joten bereala,  
Garrasi ta negarrez nik ekin neutsala,  
Naiz ta gero lurreko gauzen durunduak,  
Ichi arren negar ots guztiak ituak.

Ego baketsuokaz jatsi ta zatozkit,  
Begiok estaltzera eurakaz bertatik,  
Erdu, ta eldu zaitetz, zatoz bereala,  
Jo dagidan gaur liran, zuk emon zeunstana,  
Negarrez soñututen lagun egidazu,  
¿Ez al dakizu ondo, zer jatan gertatu?

.....

Zenbat aldiz lenago ames zoroetan,  
Poztuten zan biotz au etorkizunetan,  
Usterik ziur ziur egunen batian,  
Koronel izatea neure batalloian,  
Desegiñ ziran baña alako amesak,  
Begitanziño areek gaur jataz garratzak.

¿Zer dira inguratzen naberen gogamenak?  
Biotz au illun illun ipinten deustenak?  
¡Ai! dira gaztelako esperantz aundiak,  
Beti neure aldera danak ikusiak,  
Baña partiduetan geyegiko pozak,  
Izan oi dira barruz mokol arro utsak.

Deslaurik umeak eta emaztea,  
 Eskutatu neban nik gure banderea,  
 ¡Zorigaiztoko kontu politikakuak,  
 Ekarki deustazuez egun ain estuak!  
 Nire egiñ-barra uste dot etzala,  
 Umeak ta andrea zaintzea ezpada.

Orañ bildurrez nago dala kastigua,  
 Geisotasun ta gach au Jaunak bialdua,  
 Egun batean gerran preso nintzan jausi,  
 Ugarte onetara ninduen ekarki,  
 Galdurik umeak ta galdurik andrea,  
 Galdu dot osasuna, ta ya bizitzea.

Zelan bialdu orañ zizpuru samur bat,  
 Emazte ta umeai inogaz ez daukat,  
 Aiseak zarioiazan odeicho zuria,  
 Ay baziña niretzat gaur mandataria,  
 Eta or ichasoan zabiltzazen bagak,  
 Eroan bazengiez nire negar tantak.

Bestelan egan azkar zoazan elai,  
 ¡Artuko al deustazu arren errukia!  
 Iragoten bazara nire eche aldetik,  
 Dinotsut biotz eta arima arimatik,  
 Ene emazte maite ta ume laztanai,  
 Gorantzia illunak emoteko danai.

Azkenez biotzeko amodio-garra,  
 chimista biururik zoaz, zoaz, bada,  
 Baita zeugaz batera nire espiritua,  
 Gorputzetik urten da bijua bijua,  
 Agurtzera umeak ta andrea betiko,  
 Bakarrik gaur emenche nazalako illgo.

FELIPE ARRESE ETA BEITIA.

